

<p>OKISA OIARTZUN</p>
---------------------------

A	APLIKAZIOKO KONTRATAZIO ESPARRUA .....	2
B	ERREGULAZIO HARMONIZATUAREN MENDE EZ DAUDEN KONTRATUAK .....	4
1.	OROHAR APLIKATZEKOAK DIREN ARAUAK .....	4
2.	KONTRATAZIO ORGANOA .....	4
3.	KONTRATISTEK BETE BEHARREKO BETEKIZUNAK .....	4
3.1.	Gaitasun baldintzak .....	4
3.2.	Ahalmena .....	5
3.3.	Kontratatzeko debekuaren eraginpean ez egotea .....	5
3.4.	Gutxieneko kaudimeneko baldintzak .....	5
3.5.	Sailkapena .....	5
4.	KONTRATUAREN ELEMENTUAK .....	5
4.1.	Kontratuaren xedea .....	5
4.2.	Kontratuaren iraupena .....	6
4.3.	Prezioa .....	6
5.	KONTRATUA PRESTATZEA .....	6
5.1.	Hasiera .....	6
5.2.	Pleguak .....	6
5.3.	Baldintza ekonomiko-administratiboen plegua .....	7
6.	ESLEIPEN PROZEDURAK .....	8
6.1.	OBRA KONTRATUAK .....	8
6.2.	GAINERAKO KONTRATUAK (HORNIDURA, ZERBITZUAK ETA BESTELAKOAK) .....	13
7.	PROPOSAMENEN IREKITZEARI DAGOZKION OROKORTASUNAK .....	17
8.	ESKAITZEN SAILKAPEN ETA ESLEIPANARI BURUZKO OROKORTASUNAK .....	18
9.	KONTRATUAREN IZENPEA .....	18
10.	KONTRATUAREN EXEKUZIOA .....	19
11.	ERREKURTSOAK .....	19
D	ERREGULAZIO HARMONIZATUAREN MENDE DAUDEN KONTRATUAK .....	19
1.	ORO HAR APLIKATZEKOAK DIREN ARAUAK .....	20
2.	ESPEZIALITATEAK, KONTRATISTEK BETE BEHARREKO BALDINTZEI DAGOKIENEZ .....	20
2.2.	Espezialitateak, gaitasun baldintzei dagokienez .....	20
2.3.	Espezialitateak, gutxieneko kaudimen baldintzei dagokienez .....	20
2.4.	Kalitate bermeari buruzko arauak eta ingurmen kudeaketari buruzko arauak betetzea .....	20
3.	KONTRATUA PRESTATZEA .....	20
4.	BALIOGABETASUN SUPOSIZIO BEREZIAK .....	21
5.	ERREKURTSO BEREZIA .....	21
E	KONTRATATZAILEAREN PROFILA .....	21
I.	ERANSKINA .....	22
II.	ERANSKINA .....	25

## **A APLIKAZIOKO KONTRATAZIO ESPARRUA**

Oiartzungo Kirol Instalakuntzak, SAU Oiartzungo Udalak 1994ko abenduaren 7an eraturako sozietate publikoa da, eta akzioen % 100 Udal horrenak dira.

Sozietatearen xedea Oiartzungo udal-mugarteko kirol, aisialdi eta jolaserako obrak eta zerbitzuak sustatu eta kudeatzea da.

Bere helburuak betetzearren, Sozietateak honako zeregin hauetarako ahalmena du:

- a) Kiroldegiaren eta igerileku estalien eta beste kirol eta aisialdiko proiektu batzuen obrak kudeatu eta kontserbatzea, eta horien ondoriozko zerbitzuak eta eskubideak ustiatzea, enkarguz edo hitzarmen baten bitartez Udalarekin edo arlo horretan eskumena duen beste edozein administraziorekin.
- b) Kiroleko, aisialdiko eta jolaserako ekipamenduei buruzko hirigintzako edozein azterlan eta plan tekniko egitea, aldatzea, sustatzea eta gauzatzea, sozietateak edo hirugarren batek, lurzoruaren erregimenaren araudian aurreikusitako hirigintza-kudeaketa osagarria barne.
- c) Oiartzungo udalerriko kiroldegiaren eta igerileku estalien eta kiroleko, aisialdiko eta jolaserako ekipamenduen urbanizazioko, eraikuntzako eta azpiegiturako obrak egitea, sozietateak edo hirugarren batek.
- d) Eraikita dauden edo eraikitzen ari diren obrak eta eraikinak eskuratu, besterenganatu eta transmititzea, eta lagatzea edo errentan ematea, edota zergapetzea.
- e) Edozein administrazio publikorekin edozein izaera juridiko eta ekonomikoa duten mota guztietako kontzertuak, hitzarmenak, kontratuak eta itunak estipulatu eta gauzatzea, sozietatearen xedea betetzeko.

Bereziki, Sozietateak honako hau egiteko ahalmena izango du:

- a) Sozietatearen xedeari loturiko ondasun higigarri edo higiezinaren gaineko mota guztietako eskubideak eskuratu, besterenganatu, aldatu eta iraungitzea.
- b) Dohaintzak eta diru-laguntzak jasotzea, obligazioak jaulkitzea, kapitalen merkatuan sartzea eta kreditu publiko edo pribatuko edozein eragiketatan esku hartzea.
- c) Edozein administrazio publikok ezarritako kontribuzio berezien etekinaren eta desjabetzeen onuradun bihurtzea.
- d) Kiroldegiaren eta igerileku estalien eta kiroleko, aisialdiko eta jolaserako ekipamenduen urbanizazio- eta eraikuntza-obrak zuzendu, koordinatu, ikuskatu, kontrolatu eta fiskalizatzea, eta horien emaitzazko zerbitzuak kudeatzea.
- e) Kiroleko, aisialdiko eta jolaserako arloekin erlazionatutako beste edozein jarduerara egitea, Batzar Nagusiaren erabakiaren arabera.

OKISA  
OIARTZUN

Sektore Publikoko Kontratuen urriaren 30eko 30/2007 Legeari dagokionez (aurrerantzean SPKL edo Legea), Oiartzungo Kirol Instalakuntzak, S.A. (OKISA) “sektore publikoaren” zati da (Lege horren 3.1.d) artikuluan aurreikusitakoaren arabera) eta, Administrazio publikoa ez den arren, “botere esleitzaitzat” hartzeko Lege horretan aurreikusitako ezaugarriak ditu (Lege horren 3.3 artikulua), eta, horren ondorioz, SPKLn hartarako ezarritako aginduak aplikatu behar zaizkio eta, zehazki aipatutako Legearen 174 eta 175 artikulua.

Oiartzungo Kirol Instalakuntzak S.A. (OKISA)-k egiten dituen kontratuak kontratu pribatuak dira. Kontratu pribatuak, prestakuntza eta esleipenari dagokionez, berezko araudirik ezean, 30/2007 Legea eta beronen garapeneko araudiaren arabera egingo dira, osagarri gisa zuzenbide pribatuko arauak ezarriz. Kontratu pribatuak epaitegi zibilar dagozkio. Ondorio eta amaierari dagokionez, zuzenbide pribatuari lotuko zaizkio. Hala ere, epaitegi kontentzioso-administratiboari dagozkio harmonizatutako erregulaziopean dauden kontratuak eta II. Eranskinen 17-27 bitarteko kategorietako eta 193.000 € baino kopuru handiagoko zerbitzu kontratuak.

Oiartzungo Kirol Instalakuntzak, S.A. (OKISA)-k egiten dituen kontratuak honako kategoria hauetan sailkatzen dira:

1. Legearen eraginpekoak ez diren kontratuak, eta, beraz, ordenamendu juridikoaren, edo, hala badagokio, aplikatzekoak zaizkion arau berezien eraginpekoak direnak. SPKLren 4. artikuluan deskribatutako kontratuak dira (artikulu hori I. Eranskin gisa atxiki zaie jarraibide hauei). Jarraibide hauek ez zaizkio aplikatu behar.

2. Legearen eraginpeko kontratuak, erregulazio harmonizatukoak ez direnak. Kontratu guztiak dira, hurrengo kategoriatuak izan ezik.

3. Legearen eraginpeko kontratuak, erregulazio harmonizatukoak direnak. Ondoko kontratuak dira:

- 4.845.000 euro edo gehiagoko zenbatekoa duten obra-kontratuak.<sup>1</sup>  
euro<sup>2</sup>.

- 193.000 euro edo gehiagoko zenbatekoa duten hornidura-kontratuak<sup>1</sup>

- SPKLren II. Eranskinen 1.-16. kategorietan bildutako eta 193.000 euro edo gehiagoko zenbatekoa duten zerbitzu-kontratuak<sup>1</sup>

Zenbateko horiek guztiak BEZik gabeak dira.

---

<sup>1</sup> Edo, bestela, hemendik aurrera Europako Batzordeak finkatuko duen kopurukoa, SPKLaren hamalagarren Xedapen Gehigarrian aurreikusitakoaren arabera

Zenbatekoa alde batera utzita, SPKLaren 13.2. artikuluan (jarraibide hauei II Eranskin gisa eransten zaie artikulua hori) adierazitako kontratuak ez dira inolaz ere harmonizatutako erregulaziopeko kontratutzat hartuko, ezta SPKLaren II. Eranskineko 17-27. kategorien barnean hartutako zerbitzuak ere

## **B ERREGULAZIO HARMONIZATUAREN MENDE EZ DAUDEN KONTRATUAK**

Honako kontratu hauek dira:

- 4.845.000 euro baino gutxiagoko zenbatekoa duten obra-kontratuak.
- 193.000 euro baino gutxiagoko zenbatekoa duten hornidura-kontratuak.
- SPKLren II. Eranskineko 1.-16. kategorietan bildutako eta 193.000 euro edo gutxiagoko zenbatekoa duten zerbitzu-kontratuak.
- Zenbateko horiek guztiak BEZik gabeak dira.
- SPKLren II. Eranskineko 17.-27. kategorietan bildutako zerbitzu-kontratuak eta 13.2 artikulua horretako kontratuak, edozein zenbatekoa dutela ere.

### **1. OROHAR APLIKATZEKOAK DIREN ARAUAK**

### **2. KONTRATAZIO ORGANOA**

Kontratatzeko ahalmena Oiartzungo Kirol Instalakuntzak, S.A. (OKISA)-ren Estatutuetan eta aplikatu beharreko zuzenbide pribatuko arauetan xedatutakoaren arabera izango da.

Kontratazio Organoa Administrazio Kontseilua da, organo horrek kontratazioaren arloan kontseilari delegatuaren alde edota gerentearen alde eman ditzakeen ahalordeak aparte utzi gabe.

Hala badagokio, bidezkoztat jotzen dituen pertsonen kontratuarekin lotutako jardun zehatzak gauzatzeko ahalmena eman ahal izango die Kontratazio Organoak.

### **3. KONTRATISTEK BETE BEHARREKO BETEKIZUNAK.**

Oiartzungo Kirol Instalakuntzak, S.A. (OKISA)-rekin kontratatu ahal izango dute honako betekizun hauek betetzen eta hori egiaztatzen duten kontratistek:

#### **3.1. Gaitasun baldintzak**

Legearen 43. artikuluan aurreikusitakoak dira..

44. artikulua (enpresa ez-komunitarioentzat) eta 45. artikulua bateragarritasun-baldintza bereziei buruzkoa) aplikatuko dira.

### **3.2.Ahalmena**

Honako artikulua hauetan eskatzen dena da: 46. artikuluan (pertsoneko juridikoen ahalmena), 47. artikuluan (Erkidegoko enpresen ahalmena) eta 48. artikuluan (enpresaburuen batasunen ahalmena).

Ahalmena 61. artikuluari jarraiki egiaztatzen da.

### **3.3.Kontratatzeko debekuaren eraginpean ez egotea.**

Honako artikulua hauek aplikatzen dira: 49.1 artikulua, kontratatze debekuei buruzkoa; eta 62. artikulua, kontratatze debeku horien eraginpean ez egotea frogatzeko moduei buruzkoa.

### **3.4.Gutxieneko kaudimeneko baldintzak**

Kaudimen ekonomiko, finantzario eta teknikoko gutxieneko baldintzak Klausula Ekonomiko-administratiboaren Pleguan kasuan-kasuan ezarritakoak izango dira, eta bertan aurreikusitako moduan egiaztatuko dira.

Plegu horretan, kaudimena justifikatzeko aurkeztu beharreko dokumentuak ez ezik, kaudimen hori egiaztatzen duten gutxieneko atalaseak ere identifikatuko dira.

Honako artikulua hauek aplikatuko dira: 51. artikulua (kaudimen eskakizuna), 52. artikulua (kaudimena kanpoko baliabideen bitartez integratzea) eta 53. artikulua (kaudimen-baldintzen zehaztapena).

### **3.5.Sailkapena.**

Klausula Ekonomiko-administratiboaren Pleguan aurreikusi bada besterik ez da eskatuko administrazio-sailkapena. Zehazki, 35.000 € edo gehiagoko obra kontratuetan eta 120.000 € edo gehiagoko zerbitzu kontratuetan (30/2007 Legearen II Eranskinen 6, 8, 21, 26 eta 27 kategorietan sartzen diren zerbitzuak ezik)

## **4. KONTRATUAREN ELEMENTUAK**

### **4.1.Kontratuaren xedea.**

Bere helburu instituzionalak bete eta gauzatzeko kontratuak egitea beharrezkoa denean baino ez ditu egingo kontratuak Oiartzungo Kirol Instalakuntzak, S.A. (OKISA)-k. Proiektatutako kontratuaren bidez bete nahi diren premiak zer motatakoak diren eta haien hedapena, baita premia horiek betetzeko kontratuaren xedearen egokitasuna eta edukia ere, zehatz-mehatz azalduko dira eta kontratua prestatzeko dokumentazioan agerraraziko dira.

Kontratuaren xedea 74. artikuluan xedatutakoa aplikatuz ezarriko da.

#### **4.2.Kontratuaren iraupena.**

Oiartzungo Kirol Instalakuntzak, S.A. (OKISA)-k kontratuen iraupena finkatuko du, eta, horretarako, prestazioen izaera, finantzaketaren ezaugarriak eta gauzatzea aldizka lehiapean jartzeko beharra hartuko ditu kontuan. Horri dagokionez, 23. artikuluan xehatutakoa aplikatuko da.

Egin litezkeen luzapenak, hala badagokio, Klausula ekonomiko administratiboen Pleguan aurreikusiko dira esan-bidez.

50.000 euro baino gutxiagoko zenbatekoa duten obra-kontratuek eta 18.000 euro baino gutxiagoko zenbatekoa duen beste edozein kontratuk (betiere BEZik gabe), zuzenean esleitzekoak badira, gehienez urtebeteko iraupena izango, eta ezingo dira luzatu.

#### **4.3.Prezioa.**

Kontratuaren prezioari, aurreikusitako balioaren kalkulari eta lizitazio aurrekontuaren zehaztapenari buruzko 75. eta 76. artikuluetako arauak aplikatuko dira, Herri Administrazio ez izatearen ondoriozko egokitzeekin.

Prezioen berrikuspena dagokion Klausula Ekonomiko eta Administratiboen Pleguan aurreikusi bada egingo da.

### **5. KONTRATUA PRESTATZEA.**

#### **5.1.Hasiera**

Zuzeneko esleipena bidezkoa den kasuetan ezik, kontratazioa hasteko, Oiartzungo Kirol Instalakuntzak, S.A. (OKISA)-ren Lehendakariak edo Administrazio Kontseiluak erabakia hartu beharko du. Kontratazio erabakiak honako hauek jasoko ditu: proiektatutako kontratuaren bitartez bete nahi diren premien nondik norakoak eta hedadura, eta kontratu horren xedearen eta edukiaren egokitasuna premia horiek betetzeko

#### **5.2.Pleguak**

50.000 euroko zenbatekotik gorako kontratu guztietan (BEZa barnean hartu gabe), Plegu bat sortu beharko da ezinbestean.

Adierazitako zenbateko horretatik gorakoak diren kontratuetan, Klausula Ekonomiko eta Administratiboen Pleguarekin batera, Preskripzio Teknikoen Plegua ere beharrezkoa izango da.

Pleguan bertan edo dokumentazio osagarrian, hala badagokio, lan kontratueta subrogazio baldintzen berri emango da, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 104. artikuluan aurreikusitakoari jarraiki.

Obra-kontratueta, dagokion Obra Proiektua egin beharko da, eta horrek, hala badagokio, Preskripzio Teknikoen Plegua ordezkatu ahal izango du.

Erregulazio harmonizatuko kontratuak eta SPKLaren II. Eranskineko 17-27. kategorietan jasotako 193.000 € edo goragoko zerbitzu kontratuak eta subentzionatutakoak, 121.1. artikuluan aurreikusitakoaren eraginpean geratuko dira.

### **5.3. Baldintza ekonomiko-administratiboen plegua.**

Baldintza ekonomiko-administratiboen pleguak, prozedura negoziatuaren berezko xehetasunez, ondoko atalak izan beharko ditu:

Kontratazio organoa

Publizitatea, kontratazio profiltera iristeko bidea eta publizitate gastuak.

Kontratu gaia eta, baldin badaude, loteak

Kontratu bidez asetu behar diren premiak eta kontutan hartu behar diren alderdi guztiak.

Lizitazio oinarria den aurrekontua eta, hala badagokio, urte ezberdinetako banaketa.

Kontratazio izaera duten agiriak.

Kontratu iraupena eta, hala badagokio, luzapenen zehaztapena.

Kontratuaren esleipen prozedura. Prozedura irekia, itxia edo negoziatua.

Proposamen aurkezpena

Aurkezpen era.

Forma eta edukia (aurkeztu beharreko agiriak)

Epea eta aurkezpen lekua.

Kontratista:

Gaitasun baldintzak.

Ahalmena

Kontratatzekeo debekuak.

Kaudimen ekonomiko era finantzarioa (agiriak eta gutxieneko atalaseak)

Kaudimen tekniko eta profesionalak (agiriak eta gutxieneko atalaseak)

Ebaluaketa eta esleipena

Esleipen irizpideak eta neurketa edo, prozedura negoziatua den kasuetan, negoziazio gai diren alderdiak.

Onartutako proposamenen irekiera  
Kontratuaren esleipena eta jakinerazpena  
Esleipendunak aurkeztu beharreko agiriak eta epea  
Kontratu formalizazioa eta epea  
Alderdien eskubide eta betebeharrak  
Kontratuaren arrera eta kontratatutako prestazioari dagokion berme epea.  
Prezioaren ordainketa baldintzak.  
Kontratua amaitzeko arrazoiak.  
Zuzenbide erregimena eta epaitegiak.  
Osagarri gisa, Baldintza Ekonomiko-Administratiboen Pleguak, honako alderdiak eska ditzake:  
Finantzaketa  
Aldagaiak edo hobekuntzak: Onartzen diren edo ez argituz eta baldintzak, mugak, motak eta kontratuko zein alderdietan onartzen diren zehaztuz.  
Prezioen berrikusketa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 75. artikuluko 3. puntuan ezarritakoaren arabera. (formula edo indize ofizial aplikagarria zehaztuz)  
Behin behineko bermeak eta behin betikoak.  
Sailkapena.  
Gaitasun eta kaudimen baldintzak zuritzeko agirien azterketa data.  
Kontratu aldaketa: Kontratua aldatu daitekeen edo ez eta, egiterik badago, zein baldintzetan izan daitekeen zehaztu.  
Kontratatari ezarritako konfidentzialtasun beharraren luzapen objektiboa eta epea.  
Zesioa eta azpikontratazioa: kontratuaren zesioa burutzeko baldintzak zehaztu eta kontratatari azpikontratatu ditzakeen prestazio edo portzentaiak zehaztu (SPKL-ren 209.2.c) eta 210.5 artikuluen arabera)  
Atzeratzeagatik edo gaizki exekutazeagatik zigorrak.  
Beste edozein itun, klausula eta baldintzak, zuzenbide ordenamenduaren aurkakoak ez badira.

## **6. ESLEIPEN PROZEDURAK.**

SPKLAN aurreikusitakoa betetzeko, esleipen-prozedurak adieraziko dira ondoren, kontratu-moten eta horien zenbatekoen arabera.

Ondoren adieraziko den guztia aparte utzi gabe, Kontratazio Organoak elkarrizketa lehiakorreko prozedurara jo dezake, 163-167. artikuluetan aurreikusitako kasuetan eta artikulua horietan aurreikusitako ondorioekin.

Orobat, kontratazioa arrazionalizatzeko sistemetara ere jotzeko aukera izango du (esparru-akordioetara, kontratazioarako sistema dinamikoetara, edota kontratazio-zentraletara); horrelako kasuetan, 180-189. artikuluetan aurreikusitakoa bete beharko du harmonizatutako erregulaziopeko kontratuak esleitu ahal izateko.

### **6.1.OBRA KONTRATUAK.**



### **Zenbatekoaren araberako bereizketa**

Obra-kontratuari dagokionez, hiru prozedura bereiziko dira, obraren zenbateko ekonomikoaren arabera. Hona hemen:

- a. 50.000 eurora bitarteko zenbatekora iristen den obra-kontratua.
- b. 50.000,01 eurotik 999.999,99 eurora bitarteko zenbatekora iristen den obra-kontratua.
- c. 1.000.000 eurotik 4.844.999,9 eurora bitarteko zenbatekora iristen den obra-kontratua<sup>3</sup>.

Adierazitako zenbateko horiek guztiek ez dute BEZ barnean hartzen.

#### **6.1.2. 50.000,00 eurora bitarteko zenbatekora iristen diren obra kontratuak**

Kontratu horien kasuan, zuzeneko esleipenera joko da, oro har. Bidezko aurrekontua eskatuko da, eta Oiartzungo Kirol Instalakuntzak, S.A. (OKISA)-k onartuko du. Ondoren, dagokion kontratua sinatuko da edo, besterik gabe, aurrekontua esan-bidez eta idazki bidez onartuko da (eta aurrekontu hori onartu dela adierazi beharko da).

Kontratua betetzen dela egiaztatu ondoren, prezioa ordainduko da; kontratatzaileak dagokion faktura aldeztetik eman beharko du, eta faktura hori onartu egin beharko da.

Alabaina, negoziatutako prozedura (irekia edota murriztua) ere aukeratu ahal izango da, eta, kasu horretan, hurrengo ikatz-zatian xedatutakoa aplikatu beharko da.

#### **6.1.3. 50.000,01 eurotik 999.999,99 euro bitarteko zenbatekora iristen diren obra-kontratuak**

Mota horretako kontratuen kasuan, esleipena prozedura negoziatua, irekia edota murriztua bideratzearen bidez gauzatuko da, eta Klausula Ekonomiko eta Administrazioen Pleguan adierazi beharko da aukeratutako prozedura zehatza

##### **a. PROZEDURA NEGOZIATUA**

---

<sup>3</sup> 3 Edo, bestela, hemendik aurrera Europako Batzordeak finkatuko duen kopurukoa, SPKLaren hamalagarren Xedapen Gehigarrian aurrikusitakoaren arabera

Prozedura negoziatura jotzea erabakitzen bada, honako izapide hauek egin beharko dira

#### **a.1.Hasiera**

Kontratazioa hasteko, Oiartzungo Kirol Instalakuntzak, S.A. (OKISA)-ren Lehendakariak edo Administrazio Kontseiluak erabakia hartu beharko du zuzeneko esleipena bidezkoa denean izan ezik. Kontratazio erabakiak honako hauek jasoko ditu: proiektatutako kontratuaren bitartez bete nahi diren premien nondik norakoak eta hedadura, eta kontratu horren xedearen eta edukiaren egokitasuna premia horiek betetzeko.

#### **a.2.Eskaintzak eskatzea:**

kontratuaren xedea betetzeko ahalmena duten gutxienez hiru enpresari eskatuko zaizkie eskaintzak.

#### **a.3.Pleguak**

Klausula Ekonomiko eta Administratiboen Plegu bat sortuko da, baita Preskripzio Teknikoen Plegu bat ere, edota dagokion Obra Proiektua.

Pleguan bertan edo dokumentazio osagarrian, hala badagokio, lan-kontratueta subrogazio-baldintzen berri emango da, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 104. artikuluan aurreikusitakoari jarraiki.

#### **a.4.Publizitatea**

Kontratu horren lizitazioa eta esleipena kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

Hori guztia idatz zati honen f) letran aurreikusitakoa aparte utzi gabe.

#### **a.5.Ebaluazioa**

Klausula Ekonomiko eta Administratiboen Pleguan xedatuko dira enpresarekin negoziatu beharreko alderdi ekonomiko eta teknikoak.

#### **a.6.Aplikatzeko beste kasu batzuk**

Halaber, prozedura negoziatura ere jo ahal izango da, 154. artikuluan eta 155. artikuluko a), b), eta c) idatz zatietan aurreikusten diren kontratuetan, kontratu horien zenbatekoa edozein dela ere.

Kasu horietan, 154. artikulua a) eta b) idatz zatietako eta 155. artikulua a) idatz zatiko kasuetan baino ez da argitaratuko kontratatzailearen profileen lizitazio-iragarpena.

Klausula Ekonomiko eta Administratiboetan edota jarraibide hauetan esanbidez aurreikusten ez den guztian, honako hauetan aurreikusitakoa aplikatu beharko da: 153., 160., 161., eta 162. artikuluetan, eta horiei lotzen zaien eta aplikatu daitezkeen gainerako artikuluetan aurreikusitakoa, Herri Administrazio ez izatearen ondorioz bidezkoak diren egokitzeekin.

## **b. PROZEDURA IREKIA EDO MURRIZTUA**

Prozedura irekia edo murriztua aukeratzen bada, hurrengo idatz zatian xedatutakoa aplikatu beharko da.

### **6.1.4. 1.000.000 EUROTIK 4.844.999,99 eurora bitarteko zenbatekora iristen diren obra kontratuak**

Mota horretako kontratuen kasuan, esleipena prozedura ireki edota murriztu bat bideratzearen bitartez gauzatuko da, eta Klausula Ekonomiko eta Administratiboen Pleguan adierazi beharko da aukeratutako prozedura zehatza.

Bi kasuetan, hau da, prozedura irekian eta murriztuan, honako arau hauek aplikatuko dira:

#### **a.1.Hasiera**

Kontratazioa hasteko, Oiartzungo Kirol Instalakuntzak, S.A. (OKISA)-ren Lehendakariak edo Administrazio Kontseiluak erabakia hartu beharko du zuzeneko esleipena bidezkoa denean izan ezik. Kontratazio erabakiak honako hauek jasoko ditu: proiektatutako kontratuaren bitartez bete nahi diren premien nondik norakoak eta hedadura, eta kontratu horren xedearen eta edukiaren egokitasuna premia horiek betetzeko.

#### **a.2.Pleguak**

Klausula Ekonomiko eta Administratiboen Plegu bat sortuko da, baita Preskripzio Teknikoen Plegu bat ere, edota dagokion Obra Proiektua.

Pleguan bertan edo dokumentazio osagarrian, hala badagokio, lan-kontratuaren subrogazio baldintzen berri emango da, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 104. artikuluan aurreikusitakoari jarraiki.

#### **a.3.Publizitatea**

Gutxienez, kontratatzailearen profilean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da lizitazioa, edota kontratatzailearen profilean eta probintziako egunkari batean, eta Klausula ekonomiko eta Administratiboen Pleguan adierazi beharko da aukera zehatza.

#### **a.4. Proposamenak aurkezteko epea**

Proposamenak aurkezteko epea Klausula Ekonomiko eta Administratiboen Pleguan zehaztuko da, baina epe hori ez da ezein kasutan izango hogeita sei (26) egunetik beherakoa, Kontratazio Organoaren iritziz epe hori laburtzea justifikatzen duten ezohiko zirkunstantziak agertzen direnean izan ezik.

#### **a.5. Proposamenak aurkezteko modua**

Proposamenak isilpekoak izango dira, eta gutunazal itxietan aurkeztu beharko dira, Klausula Ekonomiko eta Administratiboen Pleguan zehazten den moduan

#### **a.6. Ebaluazioa**

Kontratua esleitzeko eta haztatzeko oinarri gisa balioko duten irizpideak Kontratazio Organoak finkatuko ditu, eta iragarpenean eta Klausula Ekonomiko eta Administratiboen Pleguan adieraziko dira.

Kontratuaren xedeari zuzenean lotutako irizpideak aintzat hartu ahal izango dira, hala nola kalitatea, prezioa, obraren erabilerari lotutako ordainsariak berrikusteko erabiliko den formula, prestazioa egikaritu edo entregatzeko epea, erabilera-kostua, ingurumen-ezaugarriak edo gizarte-eskakizunak betetzeari lotutako ezaugarriak, errentagarritasuna, balio teknikoa, ezaugarri estetiko edo funtzionalak, ordezeko piezen eskuragarritasuna eta kostua, mantentzea, laguntza teknikoa, saldu osteko zerbitzua eta antzeko beste batzuk.

Ekonomikoki onuragarriena den eskaintzari esleituko dio kontratua Kontratazio Organoak, Klausula Ekonomiko eta Administratiboen Pleguan aurreikusitako proposamenak balioesteko irizpide objektiboen arabera, eta esleipen proposamena kontuan hartuta.

Kontratazio Organoak kontratua Kontratazio Mahaiak egindako proposamenaren arabera esleitzen ez badu, erabaki hori arrazoitu egin beharko du

Kontratatazailearen profilean argitaratuko da esleipena.

Pleguan edota jarraibide hauetan esan-bidez aurreikusten ez bada, honako hauetan aurreikusitakoa aplikatu beharko da: prozedura irekiaren kasuan, 141, 142, 143, 144 eta 145. artikuluetan; prozedura murriztuaren kasuan, berriz, 146, 147, 149, 150, 151. eta 152. artikuluetan, eta horiei lotzen zaien eta aplika daitezkeen gainerako artikuluetan. Bi kasuetan, Herri Administrazio ez izatearen ondorioz bidezkoak diren egokitzeekin.

## **6.2.GAINERAKO KONTRATUAK (HORNIDURA, ZERBITZUAK ETA BESTELAKOAK).**

### **Zenbatekoen arabera bereizketa**

Kontratu horiei dagokienez (hornidura, zerbitzuak eta beste batzuk), hiru prozedura mota izango dira, horietako bakoitzaren zenbateko ekonomikoaren arabera. Hona hemen:

- a. 50.000 euroko zenbatekora bitarteko kontratua.
- b. 50.000,01 eurotik 99.999,99 eurora bitarteko zenbatekoa duen kontratua.
- c. 100.000 eurotik 192.999,99<sup>4</sup> eurora bitarteko hornidura eta zerbitzu kontratuak, eta gainerako kontratuak, zenbateko mugarik gabe.

Adierazitako zenbateko horiek guztiek ez dute BEZa barne hartzen

#### **6.2.1. 50.000 euroko zenbatekora bitarteko kontratuak**

Kontratu horien kasuan, zuzeneko esleipenera joko da, oro har. Bidezko aurrekontua eskatuko da, eta Oiartzungo Kirol Instalakuntzak, S.A. (OKISA)-k onartuko du. Ondoren, dagokion kontratua sinatuko da edo, besterik gabe, aurrekontua esan-bidez eta idazki bidez onartuko da (eta aurrekontu hori onartu dela adierazi beharko da).

Kontratua betetzen dela egiaztatu ondoren, prezioa ordainduko da; kontratatzaileak dagokion faktura aldeztatik eman beharko du, eta faktura hori onartu egin beharko da.

Alabaina, negoziatutako prozedura (irekia edota murriztua) ere aukeratu ahal izango da, eta, kasu horretan, hurrengo idatz zatian xedatutakoa aplikatu beharko da.

#### **6.2.2. 50.000,01 eurotik 99.999,99 eurora bitarteko zenbatekoa duten kontratuak**

---

<sup>4</sup> Edo, bestela, hemendik aurrera Europako Batzordeak finkatuko duen kopurukoa, SPKLaren hamalagarren Xedapen Gehigarrian aurreikusitakoaren arabera

Mota horretako kontratuen kasuan, esleipena prozedura negoziatu bat (irekia edota murriztua) bideratzearen bidez gauzatuko da, eta Klausula Ekonomiko eta Administratiboen Pleguan adierazi beharko da aukeratutako prozedura zehatza. Horrelakorik ez badago, Kontratazio Organoaren esanbidezko erabakiaren bitartez egingo da aukeraketa.

#### **a. PROZEDURA NEGOZIATUA**

Prozedura negoziatura jotzea erabakitzen bada, honako izapide hauek egin beharko dira:

##### **a.1.Hasiera**

Kontratazioa hasteko, Oiartzungo Kirol Instalakuntzak, S.A. (OKISA)-ren Lehendakariak edo Administrazio Kontseiluak erabakia hartu beharko du zuzeneko esleipena bidezkoa denean izan ezik. Kontratazio erabakiak honako hauek jasoko ditu: proiektatutako kontratuaren bitartez bete nahi diren premien nondik norakoak eta hedadura, eta kontratu horren xedearen eta edukiaren egokitasuna premia horiek betetzeko.

##### **a.2.Eskaintzak esaktzea**

Kontratuaren xedea betetzeko ahalmena duten hiru enpresari (gutxienez) eskatuko zaizkie eskaintzak.

##### **a.3.Pleguak**

Klausula Ekonomiko eta Administratiboen Plegu bat sortuko da, baita Preskripzio Teknikoen Plegu bat ere.

Kontratuaren pleguan bertan edo dokumentazio osagarrian, hala badagokio, lan-kontratuetakiko subrogazio-baldintzen berri emango da, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 104. artikuluan aurreikusitakoari jarraiki

##### **a.4.Publizitatea**

Kontratu horren lizitazioa eta esleipena kontratatzailearen profileen argitaratuko da.

Hori guztia idatz-zati honen f) letran aurreikusitakoa aparte utzi gabe.

##### **a.5.Ebaluazioa**

Klausula Ekonomiko eta Administrazioen Pleguan edo, horrelakorik ez badago, eskaintzaren eskaeran, enprekin negoziatu beharreko alderdi ekonomiko eta teknikoak finkatuko dira.

#### **a.6. Aplikatzeko beste kasu batzuk**

Halaber, prozedura negoziatura ere jo ahal izango da, 154. artikuluan, 157. artikuluko a), b), c), d) eta e) idatz-zatietan, 158. artikuluko a), b), c) eta d) idatz-zatietan eta 159. artikuluan aurreikusitako kontratuetan, kontratu horien zenbatekoa edozein dela ere.

Horrelakoetan, 154. artikuluko a) eta b) idatz-zatietako, 158. artikuluko a) idatz-zatiko eta 159. artikuluko kasuetan baino ez da argitaratuko kontratatzailearen profileen lizitazio iragarpena.

Klausula Ekonomiko eta Administrazioen Pleguan edota jarraibide hauetan esanbidez aurreikusten ez den guztian, 153., 160., 161., eta 162. artikuluetan, eta horiei lotzen zaizen eta aplikatu daitezkeen gainerako artikuluetan aurreikusitakoa aplikatuko da, Herri Administrazio ez izatearen ondorioz bidezkoak diren egokitzeekin.

### **b. PROZEDURA IREKIA EDO MURRIZTUA**

Prozedura irekia edo murriztua aukeratzen bada, hurrengo idatz-zatian xedatutakoa aplikatu beharko da.

#### **6.2.3. 100.000 eurotik 192.999,99 eurora bitarteko zenbatekoa duten kontratuak**

Mota horretako kontratuen kasuan, esleipena prozedura ireki edota murriztu bat bideratzearen bitartez gauzatuko da, eta Klausula Ekonomiko eta Administrazioen Pleguan adierazi beharko da aukeratutako prozedura zehatza.

Bi kasuetan, hau da, prozedura irekian eta murriztuan, honako arau hauek aplikatuko dira:

##### **a.1. Hasiera:**

Kontratazioa hasteko, Oiertzungo Kirol Instalakuntzak, S.A. (OKISA)-ren Lehendakariak edo Administrazio Kontseiluak erabakia hartu beharko du zuzeneko esleipena bidezkoa denean izan ezik. Kontratazio erabakiak honako hauek jasoko ditu: proiektatutako kontratuaren bitartez bete nahi diren premien nondik norakoak eta hedadura, eta kontratu horren xedearen eta edukiaren egokitasuna premia horiek betetzeko

## **a.2.Pleguak**

Klausula Ekonomiko eta Administratiboen Plegu bat sortuko da, baita Preskripzio Teknikoen Plegu bat ere.

Pleguan bertan edo dokumentazio osagarrian, hala badagokio, lan-kontratueta subrogazio-baldintzen berri emango da, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 104. artikuluan aurreikusitakoari jarraiki.

## **a.3.Publizitatea**

Gutxienez, kontratzailearen profilean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da lizitazioa, edota kontratzailearen profilean eta probintziako egunkari batean, eta Klausula Ekonomiko eta Administratiboen Pleguan adierazi beharko dira aukera zehatzak.

## **a.4.Proposamenak aurkezteko epea**

Proposamenak aurkezteko epea Klausula Ekonomiko eta Administratiboen Pleguan aurreikusitakoa izango da, baina epe hori ez da ezein kasutan izango hamabost (15) egunetik beherakoa, Kontratazio Organoaren iritziz epe hori laburtzea justifikatzen duten ezohiko zirkunstantziak agertzen direnean izan ezik.

## **a.5.Proposamenak aurkezteko modua**

Proposamenak isilpekoak izango dira, eta gutunazal itxietan aurkeztu beharko dira, Klausula Ekonomiko eta Administratiboen Pleguan zehazten den moduan.

## **a.6.Ebaluazioa**

Kontratua esleitzeko eta haztatzeko oinarri gisa balioko duten irizpideak eta berauen neurketa modua Kontratazio Organoak finkatuko ditu, eta iragarpenean eta Klausula Ekonomiko eta Administratiboen Pleguan adieraziko dira.

Kontratuaren xedeari zuzenean lotutako irizpideak aintzat hartu ahal izango dira, hala nola kalitatea, prezioa, obraren erabilerari lotutako ordainsariak berrikusteko erabiliko den formula, prestazioa egikaritu edo entregatzeko epea, erabilera-kostua, ingurumen-ezaugarriak edo gizarte-eskakizunak betetzeari lotutako ezaugarriak, errentagarritasuna, balio teknikoa, ezaugarri estetiko edo funtzionalak, ordezeko piezen eskuragarritasuna eta



kostua, mantentzea, laguntza teknikoa, saldu osteko zerbitzua eta antzeko beste batzuk.

Ekonomikoki onuragarriena den eskaintzari esleituko dio kontratua Kontratazio Organoak, Klausula Ekonomiko eta Administratiboen Pleguan aurreikusitako proposamenak balioesteko irizpide objektiboen arabera, eta esleipen proposamena kontuan hartuta.

Kontratazio Organoak kontratua Kontratazio Mahaiak egindako proposamenaren arabera esleitzen ez badu, erabaki hori arrazoitu egin beharko du.

Kontratatzailearen profilean argitaratuko da esleipena.

Pleguan edota jarraibide hauetan esanbidez aurreikusten ez bada, honako hauetan aurreikusitakoa aplikatu beharko da: prozedura irekiaren kasuan, 141., 142., 144 eta 145. artikuluan; prozedura murriztuaren kasuan, berriz, 146., 147., 149., 150., 151. eta 152. artikuluetan, eta horiei lotzen zaien eta aplikatu daitezkeen gainerako artikuluetan. Bi kasuetan, Herri Administrazio ez izatearen ondorioz bidezkoak diren egokitzeekin.

## **7. PROPOSAMENEN IREKITZEARI DAGOZKION OROKORTASUNAK**

Prozedura negoziatu, ireki eta itxietan, proposamenak aurkezteko epea amaitutakoan, jasotako agiriak garaiz eta forma egokian kalifikatu egingo dira, zehazki agiri administratiboak, horretarako Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Arautegi Orokorreko 81. artikuluan eta ondorengoetan ezarritakoa aplikatuz, lizitaziora onartutakoak, ukatutakoak eta ukapen arrazoiak zehazki jasoz.

Proposamenen irekiera Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Arautegi Orokorreko 83. artikulua eta ondorengoetan eta 30/2007 Legearen zati baten garapena den 817/2009 Errege Dekretuaren 27. artikulua eta ondorengoetan jasotzen den eran egingo da.

Automatikoki neurtu daitezkeen irizpideen balorazioa, balio iritzi batez neurtu behar direnen ondoren egingo da. Automatikoki ezin neurtu daitezkeen irizpideei dagozkien agiriak izaera publikoko ekitaldi batean irekiko dira eta ekitaldi hau administrazio agiriak irekitzen diren unetik hasita gehienezko zazpi egunen barruan egingo da. Ekitaldi hau, kontratatzailearen profilean jasotzen den leku, egun eta orduan burutuko da. Ondoren, aurkeztutako agiriak teknikoki baloratuak izango dira.

Automatikoki neurtu daitezkeen irizpideak jasotzen dituzten kartazalak, aurreko ekintzak burututakoan, kontratatzailearen profilean adierazitako leku, egun eta orduan zabalduko dira. Ekitaldi honetan ezagutaraziko dira, balio iritzia behar zuten irizpideei ezarritako neurriak.

Ondorengo egunetan, proposamenak aztertu eta baloratu egingo dira kontratazio organuari sailkapen proposamena luzatuz.

Kontratuaren konplexutasun tekniko edota ezaugarri bereziek hala eskatzen dutenean Kontratazio Mahaia eratu daiteke. Kontratazio mahaia izango da, kasu hauetan, aurkeztutako agiriak kalifikatu, eskaintzak baloratu eta kontratazio organoari sailkapen proposamena luzatuko diona. Kontratazio Mahaiaren osaera baldintza pleguan zehaztuko da.

## **8. ESKAINTZEN SAILKAPEN ETA ESLEIPANARI BURUZKO OROKORTASUNAK.**

Organo kontratatzaileak, ondorengo artikuluan ezarritakoaren arabera, gehiengotik gutxienerako ordenean sailkatuko ditu, desproporzionatu edo ezohikotzat jo ez diren onartutako proposamenak. Sailkapen hori burutzeko, pleguan edo iragarkian jasotako esleipen irizpideei jarraituko die eta horretarako nahi adina txosten tekniko eskatu ahal izango ditu. Kontutan hartu beharreko irizpide bakarra prezioa denean, prezio baxuena jaso duen proposamena joko da ekonomikoki aldekoen.

Organo kontratatzaileak, 53.2 artikulua arabera, ekonomikoki aldekoen suertatu den proposamena aurkeztu duen lizitatzailerari eskatuko dio hamar lan eguneko epean, zergekiko eta Gizarte Segurantzarekiko egunean dagoela, kontratua exekutatzeko agindu dituen edo erabili behar dituen baliabideak prest dituela eta dagokion behin betiko bermea eratua duela ziurtatzen duten agiriak aurkez ditzala.

Errekerimendua ezarritako epe barruan behar bezala burutzen ez bada, lizitatzailerak bere eskaintza erretiratu egin duela ulertuko da. Kasu honetan, eskaera berdina luzatuko zaio hurrengo lizitatzailerari, eskaintzak sailkatuak geratu diren ordena errespetatuz.

Organo kontratatzaileak, agiriak jaso eta hurrengo bost lan egunen barruan esleitu beharko du kontratua. Prozedura negoziatua eta elkarriketa lehiakorreko prozeduren kasuan, kontratuaren behin betiko baldintzak esleiepenean zehaztu eta ezarriko dira.

Ezingo da lizitazio bat huts aitortu, pleguan ezartzen diren irizpideen arabera onartutako eskaintzarik dagoen kasuetan.

Orobat, lizitazio eta esleipen iragarkiak, kontratatzailearen profilean argitaratuak izango dira.

## **9. KONTRATUAREN IZENPEA.**

Kontratua idatziz formalizatuko da, esleipenaren jakinerazpenetik kontatzen hasi eta hamabost lan eguneko epe barruan, erregulazio harmonizatuko kontratuearako Legearen 140. artikuluan ezarritakoari kalterik egin gabe.

Kontratuaren esleipen zuzena bidezkoztat jo eta burutzen bada, kontratua formalizatutzat hartzeko nahikoa izango dadagokion aurrekontua aurkeztu eta idatziz onarzea.

Baldintza ekonomiko administratiboen plegurik ez badago, izenpetzen den kontratuan sartu beharko dira, nahitaez, Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen 26. artikuluan jasotako gaiak.

Inolaz ere ezingo dira kontratuan sartu, aurkeztutako eskaintzetatik ondorioztatutako zehaztasun eta esleipen ekitaldiko xehetasunez gain, pleguetan aurrikusi ez diren eskubide eta betebeharririk.

## **10. KONTRATUAREN EXEKUZIOA.**

Kontratuaren ondorio eta amaierari dagokionez, Pleguetan aurrikusitako baldintzak aplikatuko dira (eta, horrela erabakiz gero, Administrazio Publikoen kontratazio araudiari lotu dakioke) eta osagarri gisa, zuzenbide zibilekoak.

## **11. ERREKURTSOAK.**

Kontratu horien prestaketari, esleipenari, ondorioei, betetzeari edo iraungitzeari lotutako edozein arazori dagokionez, jurisdikzio zibilean jarri ahal izango da errekurtsoa. Alabaina, erregulazio harmonizaturen mende dauden kontratuen eta 17tik 27ra bitarteko kategorietan sartu eta beren zenbatekoa 193.000,00 €tik goragoko zerbitzu kontratuen prestakuntza eta esleipenari dagozkion arazoak jurisdikzio kontentzioso-administratiboari dagozkio.

Horretaz gain, sinatutako kontratuen ondorioen, betearazpenaren eta iraungitzearen inguruan gerta litezkeen desadostasunak konpontzeko, arbitrajera jo ahal izango da, abenduaren 23ko 60/2003 Legearen xedapenen arabera. Gainera, dagokion Klausula Ekonomiko eta Administratiboen Pleguan adierazi beharko da arbitrajera joko dela, eta halako Plegurik ez badago, beste edozein kontratutan.

## **D ERREGULAZIO HARMONIZATUAREN MENDE DAUDEN KONTRATUAK**

Honako kontratu hauek dira:

- a. Obra kontratuak, aurrikusitako balioa 4.845.000 euro edo gehiago denean<sup>5</sup>.
- b. Hornidura kontratutak, aurrikuistako balioa 193.000 euro edo gehiago denean<sup>5</sup>.

---

<sup>5</sup> Edo, bestela, hemendik aurrera Europako Batzordeak finkatuko duen kopurukoa, SPKLaren hamalagarren Xedapen Gehigarrian aurrikusitakoaren arabera

- c. SPKLaren II. Eranskinaren 1-16. kategorietan bildutako zerbitzu kontratuak, aurrikusitako balioa 193.000 euro edo gehiago denean<sup>5</sup>.

Adierazitako zenbateko horiek ez dute BEZa barnean hartzen.

Hori guztia 13.2. artikuluko kontratuen kasuan izan ezik, aurrikusitako balioa edozein dela ere, horiek ez dira harmonizatutako erregulaziopekotzat hartuko.

## **1. ORO HAR APLIKATZEKOAK DIREN ARAUAK**

Harmonizatutako erregulaziopean dauden kontratuei, jarraibide hauetan harmonizatutako erregulaziopean ez daudenentzat jasotakoa dagokie, ondoko espezialitate hauekin:

## **2. ESPEZIALITATEAK, KONTRATISTEK BETE BEHARREKO BALDINTZEI DAGOKIENEZ**

### **2.2.Espezialitateak, gaitasun baldintzei dagokienez**

43. artikuluan xedatutakoaz gain, 44. artikulua ere aplikatu beharrekoa izango da (Munduko Merkataritza Erakundearen Kontratazio Publikoari buruzko Akordioa sinatu duten Estatuetakoen enpresen arteko elkarrekikotasunari buruzko txostena ez da beharrezkoa izango kasu horretan).

### **2.3.Espezialitateak, gutxieneko kaudimen baldintzei dagokienez**

Kaudimena egiaztatzeke bitartekoei dagokienez, jarraibide hauetan ezarritakoaz gain, nolana ere, 63-68. artikuluek aplikatuko dira.

### **2.4.Kalitate bermeari buruzko arauak eta ingurmen kudeaketari buruzko arauak betetzea**

69. eta 70. artikuluek aplikatuko dira, kalitate-bermeari buruzko arauak eta ingurmen-kudeaketari buruzko arauak betetzen direla egiaztatzekei dagokionez.

Horri buruzko aurreikuspenak Klausula Ekonomiko eta Administrazioen Pleguan ezarriko dira.

## **3. KONTRATUA PRESTATZEA**

Preskripzio teknikoak zehazteko eta ezartzeko, 101. artikuluan ezarritako arauak aplikatuko dira.

Orobat, 102. artikuluan (kontratua betearazteko baldintza bereziei buruzkoa), 103. artikuluan (fiskaltasunari, ingurumenaren babesari, enpleguari eta lan-baldintzei lotutako betebeharreri buruzko informazioa) eta 104. artikuluan (lan-kontratuen subrogaziorako baldintzei buruzko informazioa) xedatutakoa aplikatuko da.

Premia atzeraezin jakin bati erantzuteko kontratua sinatzea beharrezkoa bada, edota interes publikoko arrazoiak direla-eta esleipena bizkortu behar bada, Kontratazio Organoak haren izapidetzea premiazkoztat hartu ahal izango du, 30/2007 Legearen 96.2 artikuluan aurrikusitakoa aplikatuz, prestatzeko dokumentazioan behar bezala arazoituz.

Era berean, 174. artikuluan aurrikusitako espezialitateak aplikagarriak izango dira.

#### **4. BALIOGABETASUN SUPOSIZIO BEREZIAK**

30/2007 Legearen 13tik 17ra bitarteko artikuluetan aipatzen diren harmonizatutako erregulaziopeko kontratuetan eta II Eranskineko 17tik 27ra bitarteko kategorietan sartzen diren zerbitzu kontratuetan, baliogabetasun suposizio bereziei dagokienez, 30/2007 Legearen 37, 38 eta 39 artikuluetan jasotakoa ezarriko da.

Harmonizatutako erregulaziopeko kontratuetan, prestakuntza eta esleipen ekintzen ofiziozko berrikusketa 30/2007 legearen 34. artikuluan jasotakoaren arabera egingo da.

#### **5. ERREKURTSO BEREZIA**

30/2007 Legearen 301 eta ondorengo artikuluan jasotakoaren arabera, harmonizatutako erregulaziopeko kontratuetan eta II Eranskineko 17tik 27ra bitarteko kategorietan sartzen diren eta beren zenbatekoa 193.0000 euro edo gehiagokoa duten zerbitzu kontratuetan, kontratazio arloko errekurtsu bereziak izan ditzakete.

Errekurtsuaren erabakiaren aurka, errekurtsu kontentzio-administratiboa bakarrik jarri daiteke, Juridikzio Kontentzioso-Administratiboa Arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean ezarritakoaren arabera.

Ekintza horiek baliogabe edota kaltegarri izendatzeko ahalmena Oiartzungo Udalak izango du, guzti hori Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 34. artikuluan aurrikusitakoaren arabera.

### **E KONTRATATZAILEAREN PROFILA**

Oiartzungo Kirol Instalakuntzak, S.A. (OKISA)-k Internet bidez hedatuko du kontratatzailearen profila, haren kontratazio-jarduerari buruzko informazioaren gardentasuna eta informazio horretarako sarbide publikoa bermatzeko.

Kontratzailearen profilerako sarbidea izateko modua Pleguetan eta lizitazio iragarpenetan zehaztuko da, besteak beste.

Kontratzailearen profilaren euskarri izango den sistema informatikoak gailu jakin bat eduki beharko du; gailu horren bitartez, bertan sartutako informazioa hedatzen hasten den unea behar bezala egiaztatu ahal izango da.

Oiartzungo Kirol Instalakuntzak, S.A. (OKISA)-ren kontratzailearen profilean, honako datu eta informazio hauek argitaratuko dira:

Kontrataziorako barne-jarraibide hauek.

Kontratuen lizitazioen iragarpena, kontratu txikiak eta publizitaterik gabe negoziatutako kontratuak izan ezik.

Kontratuen esleipena, kontratu txikiak eta publizitaterik gabe negoziatutako kontratuenak izan ezik.

Publizitate printzipiotik ondorioztatuako betebeharrak betetzat joko dira, 50.000 euro baino gehiagoko kontratuen lizitazioari buruzko informazioa sartuz.

Horrez gain, Oiartzungo Kirol Instalakuntzak, S.A. (OKISA)-ren kontratazio-jarduerari buruzko edozein datu eta informazio ere jaso dezake kontratzailearen profilak; besteak beste, honako hauek: 125. artikuluan adierazten diren aldez aurreko informazio-iragarpenak, lizitazio irekiak edo egungo lizitazioak eta horiei dagokien dokumentazioa, programatutako kontratazioak, esleitutako kontratuak, deuseztatutako prozedurak, Kontratazio Organoarekin harremanetan jartzeko erabil daitezkeen guneak eta komunikabideak eta abar.

## **I. ERANSKINA**

### 4. artikulua. Salbuetsitako negozioak eta kontratuak

1. Lege honen esparrutik salbuetsita egongo dira honako negozioak eta harreman juridikoak:

- a) Funtzionario publikoen zerbitzu-harremana eta lan-legeriak araututako kontratuak.
- b) Erabiltzaileak aplikazio orokorreko tarifa, tasa edo prezio publikoren bat ordaintzera behartzen dituen zerbitzu publiko baten prestazioan oinarritutako harreman juridikoak.
- c) Estatuaren Administrazio Orokorrak Gizarte Segurantzaren erakunde kudeatzaileekin edo zerbitzu komunekin, Unibertsitate Publikoekin, Autonomia Erkidegoekin, tokiko erakundeekin, erakunde autonomoen eta gainerako erakunde publikoekin sinatutako lankidetzak-hitzarmenak, edota erakunde eta entitate horiek euren artean sinatutako

lankidetzeta-hitzarmenak, euren izaera dela-eta Lege honi lotutako kontratutzat hartzen direnean izan ezik.

- d) Arautzen dituzten berariazko araei jarraiki Administrazioak zuzenbide pribatuaren mendeko pertsona fisiko edo juridikoekin sinatutako hitzarmenak, betiere haien xedea Lege honek edo administrazio-arau bereziek arautzen dituzten kontratuen xedearen barnean hartzen ez bada.
- e) Europako Erkidegoa Eratzen duen Itunaren 296. artikulua esparruan bildutako hitzarmenak, baldin eta defentsa-sektorean erabakitzen badira.
- f) Estatuak beste Estatu batzuekin edota nazioarteko zuzenbide publikoko erakundeekin sinatutako akordioak.
- g) Herri Administrazioen mende dauden zuzenbide publikoko erakundeen zuzeneko jardueri lotutako hornidura-kontratuak, baldin eta haien jarduerak merkataritza-, industria- edo finantzaizaera edota antzekoa badu, eta kontratu horietan adierazitako ondasunak ondare-trafiko juridikora itzultzeko helburuarekin hartu badira, eraldatu ondoren edo eraldatu gabe, helburu berezien arabera, betiere Legeak eman dizkien berariazko eskumenez baliatuz jarduten badute erakunde horiek.
- h) Europako Erkidegoa Eratzen duen Itunari jarraiki Europako Erkidegoko kide ez diren bi herrialde edo gehiagorekin sinatutako nazioarteko akordioen ondoriozko kontratuak eta hitzarmenak, baldin eta obra jakin bat batera gauzatzera edo ustiatzera zuzendutako obrei edota hornidurei buruzkoak, edota proiektu jakin bat batera gauzatzera edo ustiatzera zuzendutako zerbitzu-kontratuei buruzkoak badira.
- i) Tropen estazionamenduen inguruan sinatutako nazioarteko akordio jakin bati jarraiki gauzatzeko kontratuak eta hitzarmenak.
- j) Nazioarteko erakunde jakin baten berariazko prozedura bati jarraiki esleitutako kontratuak eta hitzarmenak.
- k) Arbitraje- eta adiskidetze-zerbitzuei lotutako kontratuak.
- l) Baloreak edo bestelako finantza-tresnak igortzeari, erosteari, saltzeari edota transferitzeari lotutako finantza-zerbitzuei lotutako kontratuak, batik bat estatuaren finantza-kudeaketari lotutako eragiketak, sektore publikoko erakunde eta entitateek fondoak edo kapitala lortzera zuzendutako eragiketak, Espainiako Bankuak emandako zerbitzuak edota diruzaintzaeragiketak.
- m) Sektore publikoko erakunde edo entitate jakin bat ondasun edota eskubide jakin batzuk edota zerbitzu jakin bat ematera behartzen duten kontratuak, ondasun horiek hartzen dituen edo zerbitzu hori jasotzen duen erakundeak (sektore publikoko

erakundea bada eta Lege honen mende badago) dagokion kontratua sinatzeko haren preskripzioekin bat etorri beharra aparte utzi gabe.

- n) Negozio juridikoak, haiei jarraiki erakunde jakin bati prestazio jakin bat ematea eskatzen zaionean, betiere erakunde horri, 24.6. artikuluan adierazitakoaren arabera, haren bitarteko propioaren eta zerbitzu teknikoaren izaera esleitu bazaio. Hala eta guztiz ere, enkargatutako prestazioak gauzatzeko bitarteko propioetat eta zerbitzu teknikoetat jotzen diren erakundeek sinatu beharreko kontratuak Lege honen mende egongo dira, kontratu horiek sinatzen dituen erakundearen izaeraren eta prestazio horien zenbatekoaren arabera bidezkoak diren baldintzetan. Nolanahi ere, Aurretiazko Titulu honen II. Kapitulua 2. Atalean ezarritako mugak gainditzen dituzten obra-kontratuak, zerbitzu-kontratuak edota hornidura-kontratuak badira, zuzenbide pribatuko erakundeek 121.1 eta 174. artikuluetan ezarritako arauak bete beharko dituzte kontratu horiek prestatzeko eta esleitzeko.
- o) Jabari publikoko ondasunei lotutako baimenak eta emakidak, eta ondare-ondasunak ustiatzeko kontratuak (7. artikuluan zehaztutakoez bestelakoak); bakoitzari dagokion berriazko legeriak arautuko ditu horiek, Lege honen preskripzioak aplikatu beharrekoetat esanbidez hartzen diren kasuetan izan ezik.
- p) Ondasun higiezin, balore negoziagarrien eta jabetza ukiezin salerosketa-, dohaintzatrukatze- edo errentamendu-kontratuak, eta ondasun higiezin inguruko gainerako antzeko negozio juridikoei lotutakoak, betiere ordenagailu-programei buruzkoak ez badira eta, beraz, hornidura- edo zerbitzu-kontratutzat hartu behar ez badira. Izan ere, horrelakoak kontratu pribatuak izango dira beti, eta ondare-legeriaren arabera arautuko dira. Kontratu horietan, Aurretiazko Tituluaren II. Kapitulua 1. Atalean araututako ohiko kontratuetako prestazioak ezin izango dira sartu, baldin eta horien aurreikusitako balioa negozioaren guztizko zenbatekoaren % 50 baino handiagoa bada, edo ondare-kontratuaren prestazio bereizgarriarekin 25. artikuluan aurreikusitako baldintzetan lotura- eta osagarritasun-harremanak ez badituzte. Bi kasu horietan, nolanahi ere, prestazio horietarako kontratu independentea egin beharko da, Lege horretan ezarritakoari jarraiki.
- q) Estatuko ikerketa-erakunde publikoek eta Autonomia Erkidegoetako antzeko erakundeek sinatutako zerbitzu- edo hornidura-kontratuak, baldin eta ikerketa, garapen eta berrikuntza teknologikoko edo zerbitzu teknikoeko proiektuak gauzatzeko beharrezkoak diren prestazio edo produktuak badituzte xede, horien ondoriozko emaitzen aurkezpena eta lorpena trafiko juridikora sar daitezkeen itzulkin zientifikoekin, teknologikoekin edo industrialekin lotuta badaude, eta norgehiagoka-prozesuen bitartez, erakundeko ikerketa-taldeei haiek gauzatzeko agindua eman bazaie.

2. Aurreko idatz-zatian zerrendatutako kontratuak, negozioak eta harreman juridikoak beren arau berezien bitartez arautuko dira, eta Lege honen printzipioak aplikatuko dira sor litezkeen zalantzak eta hutsuneak konpontzeko.



## II. ERANSKINA

13. artikulua.

2. Aurreko idatz-zatian adierazitakoa gorabehera, aurreikusitako balioa edozein dela ere, honako kontratu hauek ez dira harmonizatutako erregulaziopekotzat hartuko:

- a) Xede gisa irratidifusioko programen erosketa, garapena eta produkzioa eta koprodukzioa dutenak, irratidifusioko erakundeei gagozkiela, baita irratidifusioko denborari buruzkoak ere.
- b) Kontratazio Organoak oso-osorik ordaindutako ikerketa- eta garapen-kontratuak, betiere emaitzak erakunde horrek bere jardura betetzean eskusiboki baliatzeko gordetzen ez badira.
- c) Europako Erkidegoa Eratzen duen Itunaren 296. artikulua zehaztutako esparruan bildutakoak, baldin eta defentsa-sektorean erabakitzen badira.
- d) Sekretutzat edo erreserbatutzat hartutakoak, edo betearazteko segurtasun-neurri bereziak eskatzen dituztenak indarrean dagoen legeriaren arabera, edo funtsezko interesen babesak hori eskatzen duenean Estatuaren segurtasunerako.
- e) Xede gisa Kontratazio Organoei telekomunikazioetako sare publikoak eskueran jartzea edo ustiatzea, edo jendea telekomunikazio-zerbitzu batez edo gehiagoz hornitzea dutenak.